

LIZARRAKO GAZTE EUSKALTZALEEN
HIZKUNTZA SOZIALIZAZIOA:
HIZKUNTZA PRAKTIKEN AZTERKETA

Ainhoa Pardina Arenaza

Euskal hizkuntzalarien VII. topaketa

Iruñea, 2024-06-27

AURKIBIDEA

1. Definizioak
2. Proiektua: metodologia
3. Emaitzak
4. Ondorioak

1. DEFINIZIOAK

HIZKUNTZA SOZIALIZAZIOA

- Hizkuntza ikasi + hizkuntzaren bidez gizarteko kide konpetente bihurtzeko prozesua (Ochs eta Schieffelin 1982, Nonaka, 2012: 614).
 - **Bizitza osoan** (Duff, 2012: 564), + guztiak agente (Ochs & Schieffelin, 2012: 5-6).

MUDA LINGUISTIKOAK

- Hiztuna hizkuntza bat egitetik bestea egitera pasatzea euren eguneroko ohiko elkarrekintzetan.
 - Katalana vs euskara

5. PROIEKTUA: metodologia

- Testuingurua: Lizarra, Nafarroako eremu mistoa
- Parte hartzaileak: 18-30 urte bitarteko gazte euskaltzaleak (guztira 20-30 gazte)
- Metodologia:
 - Behaketak
 - Elkarrizketak: banakakoak + taldekoak
 - Ibilbide gidatuak

HELBURUAK

- Nafarroak eremu mistoan, hots, testuinguru oztopatzailean, gazteen **euskaltzasuna nola eraikitzen eta egikaritzen den** aztertzea da, horretarako hizkuntza sozializazioaren ikuspegiaz baliatuz.

1.

Gazteek
euskara
nola jaso
duten
aztertzea

2.

**Gazte
euskaltzaleen
hizkuntza
identitateak**
(taldekoak nahiz
banakakoak)
aztertzea.

3.

**Gazte
euskaltzaleen
hizkuntza
ideologiak
aztertzea.**

4.

**Gazte
euskaltzaleen
hizkuntza
praktikak
aztertzea: tokien
arabera &
denboran zehar.**

Datu bilketa: orain arte...

Aurretiazko landa lanerako teknika	Kopurua	Data	Zenbat denborako datuak bildu (ordu:minutu)
Behaketak	16	Puy jaiak: 2023-05-20 goizean	7:30
		Puy jaiak: 2023-05-20 gauean	3:30
		Puy jaiak: 2023-05-21 goizean	3:30
		Puy jaiak: 2023-05-25 arratsaldean	1:30
		Erdi Aroko azoka: 2023-07-30 egun osoan zehar	12:00
		Lizarrako jaiak: 2023-08-04	13:00
		Lizarrako jaiak: 2023-08-05	12:30
		Abuztua kanpinean. Euskal Jaia: 2023-08-19	8:30
		Abuztua amaiera kanpinean: 2023-08-28	1:30
		San Andres feriak: 2023-12-01, gaua	6:00
		San Andres feriak: 2023-12-02, goiza	4:00
		Lizarra, Ametsa, Katxetas eta Berri tabernak: 2023-12-17	5:30
		Herri Iñauteriak: 2024-02-3, eguna	5:00
		Korrika: 2024-03-17, arratsaldea eta gaua	3:45
		Lizarrako eguna: 2024-04-13	10:00
Villatuerta, Lizarraldeko gazte eguna: 2024-04-20, eguna	4:30		
Guztira	16 Behaketa	102:15 ordu	

Aurreiazko landa lanerako teknika	Kopurua	Data
Elkarrizketak (parte hartzaileei)	10/23	IV: 2023/09/25
		OI: 2023/09/27
		Ait: 2023/09/28
		AM: 2023/10/04
		MB: 2023/10/08
		Tir: 2023/10/9
		AmS: 2023/10/10
		AmO: 2023/10/11
		MI: 2023/10/12
		DL: 2023/10/18

Aurretiazko landa lanerako teknika	Kopurua	Data
Elkarrizketak (parte hartzaileak izango ez direnei)	13/23	D: 2023-05-25
		O: 2023-06-22
		E: 2023-06-22
		KAi: 2023-08-19
		KAg: 2023-08-19
		KM: 2023-08-28
		KCPT: 2023-08-28
		KT: 2023-08-28
		KJ: 2023-08-28
		MK: 2023-09-20
		IB: 2023-10-03
		AG: 2023-10-11
		Ek: 2023-10-13

6. EMAITZAK

- Erabilera: Lizarran ia beti gazteleraz:

- (1) **Lizarran... (...)** beti hitz egin dugu gazteleraz, baino... baino... ez dugu hainbeste... osea, gehiena gazteleraz beti. Bai. (BE-AmS)
- (2) **Eztakit zergatik baino mundu danak nekin euskeraz iteu (...)** osea, gertatu izan zait igual ba XXXX (“txierran”?) egotia, ta elkarrizketa dana erderaz, ni sartu, eta super kuriooa, ze **haien artean erderaz seittu baino neri zerbait esaterakon, derrepente giratu eta euskeraz bota.** Osea... bai. O ni sartu ta derrepente konbertsazioa euskerara pasa, o... Hoi gertatu izan zait. (BE- Ait)



Espazioak

Taberna euskaldunak

(3) **Berrin, bai esango nuke orain ba... izan daitekeela (...)** euskera gehien entzuten **den tokia**, ze... kamareroak dira nahiko euskaldunak, eta ahaleginak egiten dituzte, nik uste, bai euskara hori bultzatzeko, eta ba... **nik beti eskatu eta holako gauzak euskaraz iteut taberna hortan bakarrik.** (BE-DL)

(4) espazio aldetik ba igual (...) **Katxetas taberna eta gutxi gehio**, egia esan. (BE-Ait)

Larraiza

(5) **lotura bastante daka. Osea, horra juten dan jendia euskalduna da.** Adibidez, klasek euskeraz ematen dia (...) bai. Bai, bai, euskaraz egiten dute. (BE-Ait)

(6) nire taldean pues e badago jendea ez dakila euskeraz, ordun e **gure artean euskeraz hitz egiten dugu eta ez dakienak pues berriz esaten diogu baina gazteleraz adibidez.** (BE-MB)

Gaztetxea eta ikastola ingurua

(7) **Lizarra ikastolako bidean, hau da, gurasoak haien umeak eramaten dituzten momentu hortan, bai egia da izan daitekeela euskera gehien entzuten den momentua, (...)** guraso horiek haien seme alabei euskeraz hitz egiten diotenean, ba hor bai entzuten dela. **Bestela gehienbat ba hori, esandakoa, gaztetxean bai batzutan e... hitz egiten dela** ba azkenean euskaldun giro hori pixkat e ikusten delako (...) **bileran zaudenean, hor, bilerako txip hortan zaudenean, bai euskeraz egiten duzula (...)** baina gero, hortik kanpo, e ba bilera amaitzerakoan o bilera baino lehen, dena orokorrean **gazteleraz egiten dela.** (BE-DL)

(8) ba bai egia da **gaztetxean eta horrela gerturatzen den jendea e euskaldunagoa dela** eta igual errezagoa dela jendearekin euskeraz hitz egitea (...) bai igual **gaztetxean egiten diren bileretan eta saiatzen da bultzatzen hori, euskaraz.** (BE-AmS)

- Erabileran eragiten du:

Militantziak

(9) **gaztetxean ibilitakuak edo gaztetxearekin harreman bastante euki izan dutenak** bere garaian. (...) nik uste denda hoietan gehio edo gutxigo kostako zaie baino **joera bastante handia da euskeraz iteko**, pixkat jakitiakin (BE-Ait)

(10) **kontraboterezko tresna** bat bezela ikusia izan zan (...) Ta nik uste kontraboterezko izaera hau gaur egun ere mantentzen duela. Orduan, e... **sortzen dian eragile gehienak (...) euskaldunak dia edo behintzat euskararekiko jarrera edo atxikimendu estua eukitzen dute** (BE-Ait)

(11) **unibertsitadean ya sartu nintzen pixkat e asanbladetan, militatzen pixkat, eta egia da ba holako munduetan euskera dela ba... erdigunean jartzen dena**, eta normala den moduan. (...) besteak ikusten dituzu euskaraz hitz egiten, eta zu **behartuta zaude euskeraz hitz egitera**, etzara bat-batean... bueno, badago jendea gazteleraz hitz egiten duena, baina bueno (BE-DL)

Generoak

(12) **Orokorrean mutilek erderaz iten dute**. Bai beaien artean, bai neskei, bai mundu guztiari. **Ta nexkek aldiz haien artian euskaraz ta mutilei erdaraz erebai**. (BE-Ait)

- **Mudak gauzatzeko lagungarriak diren faktore eta estrategiak:**

- **Unibertsitatea:**

(13) beste kuadrilla bat, izango litzateke ba unibertsitateko kuadrilla edo Erasmuseko kuadrilla.

Egon nintzen Txilen e Txilen Erasmusa egiten, e jende euskaldunakin, eta hor bai euskera presente presente dagola. (...) **euskera guztiz hitz egiten dudana, izango litzatekena unibertsitateko eta Erasmuseko lagunekin (BE-DL)**

(14) adibidez e badakit e **unibertsitatean eta errezagoa dala jendearekin euskaraz egitea (BE-AmS)**

➤ Mudak gauzatzeko estrategiak:

- Esplizituki horri buruz hitz egitea + hausnartzea.

(15) Batzutan igual pedrada ematen badigu, **“beinga, ba, guazen hitz egitera euskeraz, ez dakit zer”** (BE-DL)

- Inplizituagoak: ikasketak egiteko Lizarran ikastetik Bergaran ikastera pasatzea + nork bere buruari prestigioa ematea.

- **Mudak oztopatzen dituzten faktoreak:**

- Faktore oztopatzaileak: arau soziala + gaitasun/erosotasun falta+ taldea.

(16) **hain e ohitura falta dago askotan que se va (...)** zaila da... Eske **ohitura faltak egiten du...** osea dauka indar asko. (...) **jendeari kostatzen zaio asko testuinguru informaletan euskeraz egitea (...)** etzaie ateratzen e lagunartean euskeraz egitea. (BE-AmS)

(17) **gazteleraz jotzen dugu ze betidanik hemen gazteleraz hitz egin dugu, eta erraztasuna dakagu e gaztelerara jotzeko. (...)** Jende askok ez dauka inolako erraztasuna euskeraz egiteko eta **asko galtzen da.** Eta nik ulertzen dut e, azkenean oso zaila da zure hizkuntza ez den batean hitz egitea, ba hori, oso inutila sentitzen zara. (...) **Erraztasuna ez dakan pertsona batekin hasten bazara euskeraz hitz egiten, seguraski gazteleraz erantzungo dizu.** (BE-DL)

(18) gehienetan ez, ze Lizarrako **kuadrillan dago jendea** gazteleraz... e, **euskeraz ez dakina,** eta azkenean ba ezintasun handi bat da hori (BE-DL)

5. ONDORIOAK

- Euskaraz espazio batzuetan: Larraiza, taberna euskaldunak, ikastola ingurua eta gaztetxea.
- Muda linguistikoak: unibertsitatean (harreman sareak). Katalana vs. Euskara.
 - Muda oztopatzaileak: gaitasun falta + arau soziala+ taldea

Ekherunko